

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

2022-2024 Dirulaguntzen plan estrategikoaren hirugarren aldaketa

Aguraingo udalbatzak, 2024ko maiatzaren 30ean egindako ohiko bilkuran, 2022-2024 ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoaren hirugarren aldaketa hau onetsi zuen:

1) 2022-2024 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea, VIII. Jarduteko ildo estrategikoak atalean, honako arlo hau sartuz:

ARLOA: OSASUNA

Animalien defentsan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako prestazio ekonomikoak.

| | |
|--|---|
| 1. Helburu estrategikoak | Animalien eskubideak eta ongizatea babestea, eta, zehazki, katuen koloniak, indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez (9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Etxeko Animaliak Babesteari buruzkoa, eta 7/2023 Legea, martxoaren 28koa, Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babestekoa) |
| 2. Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina | Laguntza hauek animalien ongizatea helburu duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzat dira |
| 3. Helburu zehatzak eta aplikazioaren bidez lortu nahi diren eraginak | Udalerrian dauden katuen koloniak ezagutu nahi dira, baita horien ongizatea eta kontrola ere |
| 4. Denbora tartea / Gauzatzeko beharrezko epea | 2024 eta plan estrategiko berria |
| 5. Aurrera eramateko aurreikusten diren kostuak eta finantziazio iturriak | 2024ko ekitaldia: 6.000 euro, baliabide propioak 2025, 2026 eta 2027ko ekitaldiak: 6.000 euro |
| 6. Ekintza plana: hitzarmen bidezko dirulaguntzen lerroa, eskubide eta betebeharrekin arautzen duten oinarriak ezartzen dira | Hitzarmen bidez zuzenean ematen den dirulaguntza da |
| 7. Etengabeko ebaluazioaren jarraipen araubidea eta planaren helburuekin zerikusia duten adierazleak | Dirulaguntza lerro honen jarraipena Arabako Lautadako Kuadrillako ingurumen zerbitzuak egingo du |
| 8. Dirulaguntza emateko araubidea / modalitatea | Zuzena / Nominatiboa hitzarmenarekin GADEN elkarteak |
| 9. Onuradunak | Animalien defentsa eta ongizatea helburu duten irabazi-asmorik gabeko elkarteak |
| 10. Deialdiaren oinarrietan erakunde eskatzaileen aldetik berdintasuna benetan lortzeko jarduketarik aurreikusten al da? | Bai |
| 11. Eragindako aurrekontu aplikazioa(k) eta zenbatekoa(k) | 2024ko aurrekontu partida 311.481.001 – "Abandonatutako animalien kudeaketa" 6.000 euroko diru-hornidura GADEN elkartearentzat |

2) Aldaketa hori ALHAOn, udalaren webgunean eta Aguraingo Udalaren iragarki taulan argitaratzea.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Agurain, 2024ko ekainaren 5a

Alkatea
RAUL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR